

BALIO PROPOSAMENA:

Gure produktuak bezeroei ematen dizkien onurak hauek dira: Apunteak errazago hartuko dituzte, lana erraztuz guztia bilduta egongo delako.

Gure produktuak bi balio ditu: alde batetik, kuantitatiboa, prezio eskuragarria izango duelako bezeroentzat; bestalde, kualitatiboa, gure diseinuaeri esker errezago egingo zaielako ondo eta txukun antolatzea apunte guztiak.

Produktu berri bat izango da lehenik ez delako existitzen.

Beste alde batetik, bereiztuko gaituena izango da bezeroek aukera izango dutela beren *smartfolder*-ra pertsonalizatzeko. Hau da, kolorea aukeratu ahal izateaz gain, beren diseinu propioak egiteko aukera izango dute (foto). Aipatzekoa da, gure web orrian sartuko balira gure produktua eskatzeko, aukera izango luketela guri informazioa emateko, guk *smartfolder*-a beren gustuetara egokitu dezagun (adb: tamainua, diseinua...)

Kontuan hartuta gure produktua ukipen pantaila eta artxibagailu batez osatuta dagoela, prezioan eragina izango du. Prezioaren eta balioaren artean oreka bat egon behar du, eskuragarri izan dezan ikasle guztientzat kalitatea galdu barik.

Arriskuak saihesteko, produktuaren funtzionamendu optimoa ziurtatzen duen berme bat ematen dugu; eta horrela ez bada, konpondu edo ordeztu egingo da erabat berria den batekin.

Eskuragarritasun handia izango du, interneten bidez saltzen baitugu, eta horretaz aparte, kolaboratzen dugun dendetan ere aurki dezakezu (adb: El Corte Ingles-ean)

Erabilera erraza dauka; izan ere, artxibagailu eta tablet bat bezalakoa da, jende guztia erabiltzen dakiena.

